

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZALDUONDOKO UDALA

**Behin betiko onespena ematea zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza aldatzeari**

2019ko abenduaren 4ko ALHAOn (140. zk.) iragarkia argitaratu ondorengo jendaurreko arauzko epean erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onespena ematen zaio zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeko espedienteari. Horiek horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, ordenantzaren testu osoa argitaratzen da.

#### I. eranskina, 1. epigrafea: "Zaborra biltzeko zerbitzuaren tasa" 6. araua "Tarifen taula"

"6. Tarifen taula:

Konposta egiten duten abeltzaintza etxebizitza eta ustiategiak	50 €
Konposta egiten ez duten abeltzaintza etxebizitza eta ustiategiak	60 €
Konposta egiten duten tabernak, ostalaritza establezimenduak eta jatetxeak	80 €
Konposta egiten duten tabernak, ostalaritza gunek eta jatetxeak	90 €

a) Konpostatze jardueren tarifa aplikatzeko, subjektu pasiboek eskaera formularioa aurkeztu beharko dute ekitaldi bakoitzeko ekainaren 15a baino lehen, hain zuzen ere etxebizitzei hiri hondakin solidoen zerbitzuan konpostatze jardueren tasa aplikatzeari dagokiona.

Udaleko teknikariek ikuskatze bisita bat egingo dute etxean, eta konpostatze tarifa aplikatzearen aldeko txostena egingo dute hauek egiaztatzen badira:

– hondakinen gaikako bilketa (papera, beira, ontziak eta sukaldeko olioak) behar bezala egiten dela.

– etxeko konpostatzea egiten dela, hau da, materia organikoa etxean bertan tratatzen dela.

Bermikonpostajea egiten bada, egiaztatu egingo da bertan sartzen direla sukaldeko landare hondakin guztiak.

Lorategiko konpostajea egiten bada, egiaztatuko da lorategiko zein sukaldeko hondakinak jartzen direla.

Bi kasuetan ikusi beharko da konpostatze prozesu osoa (hondakin freskoak, usteltzen ari diren hondakinak eta ustelduak), baita ere hainbat mikroorganismo daudela.

b) Zerbitzu orokor eta nahitaezkoak emateagatik tasa ordaindu behar duten pertsonak alta, baja eta aldaketa aitortzen aurkeztu beharko dizkiote udalari, hau da, tasa zuzen ezartzeko behar diren datuak eman beharko dizkiote, tasaren menpe dagoen etxebizitza, lokala edo establezimendua erosten den egunetik hasita hilabeteko epean, edo horri eragiten dion aldaketa gertatzen den egunetik hasita; horretarako udalak onartutako ereduak erabili beharko da.

c) Ez da tasa hau ordaindu beharko Zalduondoko Udalarenak diren higiezinengatik.

d) Bizilekuaren titulartasunean aldaketak egonez gero, jabeak nahitaez jakinarazi beharko dizkio Zalduondoko Udalari eroslearen identifikazio datuak. Edozein kasutan ere, titularrak eroslearen ordezkotza izango du.

e) Izaera orokorreko eta nahitaezko zerbitzuen kuotak ezin dira ez hainbanatu ez murriztu, eta sortzen dira urte natural bakoitzaren lehenengo egunean, nahiz eta Udalak tasa hau hiru edo sei hilabetean behin kobra dezakeen.

**I. eranskina, 1. epigrafea: "Zaborra biltzeko zerbitzuaren tasa"**  
**7. araua "Hobariak"**

"7. Hobariak:

Tasaren kuotan hobariak izateko eskubidea izango dute honako taula honetan zerrendatzen diren baldintzak betetzen dituzten zergadunek, hartan agertzen diren ehunekoaren arabera:

FAMILIA UNITATEKO KIDEAK	ERRENTA, URTEAN 17.000 EURO BAINO GUTXIAGO
1etik 3ra	ehuneko 35
4tik 6ra	ehuneko 50
7tik gora	ehuneko 75

Familia unitatea dela adituko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 98. artikuluan definitzen dena (33/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa).

Aurrekoa gorabehera, dagokion etxebizitza horretan zergaren sortzapen datan familia unitatea eratzten duten pertsonak baino pertsona gehiago badaude erroldatuta, familia unitateko kideztat hartuko dira etxebizitzan erroldatutako pertsona guztiak eta, hortaz, haien diru sarrera guztiak zenbatuko dira.

Hobaria izateko betekizun eta izapide formalak:

- Eskatera, hobariaren gai den higiezina identifikatzen duena.
- Zerga hobaria jaso den urtearen aurreko PFEZaren fotokopia konpultsatua, familia unitateko kide guztiena, edo aitortpena egin beharrik eza egiaztatzen duen agiria.
- Sei hilabete izango dira eskaerak aurkezteko, hain zuzen ere otsailetik uztaileira urtero, eta ordaindutakoaren zati baten itzulketa gisa izapidetuko da.

Artikulu honetako hobariak interesdunek eskatu behar dituzte; eskaerak organo eskudunak ebatziko ditu.

Tasa honetako hobariaren onuradun izan ahal izateko beharrezkoa da eskatzailea egunean egotea udal honekiko zerga betebeharretan.

Hobariak urtero eskatu behar dira, haren emakidan hainbat zergalditan berez berritzeko aukera jasota badago izan ezik, eta onura aitortzen den urtean indarrean den zerga ordenantza behin betiko onartzean emango dira.

Aurkeztu beharreko eskaera eredia emango zaie eskatzaileei, nahitaez aurkeztu beharko baitute eskatzen zaizkien agiriekin batera.

Toki administrazioak behar diren datu guztiak egiaztatuko ditu ofizioz, eta beste erakunde batzuei egiaztatzen laguntzeko eskatuko die.

Guztiak jakin dezaten eta ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Zalduondo, 2020ko urtarrilaren 13a

*Alkatea*  
**GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE**